

DEHLER, BUNDESTAG (Alemaniko kama- ra)'ren BIGARREN LENDAKARIA MOSCOUN

Dakigenez guda aurreko Alemania bi zatian erdibituta arkitzen da gaur. Guda alemanak galduta Errusi, Ipar-Ameriketa Inglaterra ta Frantziako gudariak bere eskutian arturik lau zatitan ebaki zuten, zati oien bakoitzarentzako. 1948'gn. urtean Ipar-ameriketa, Inglaterra ta Frantziako gobernuek beren mendeen zeuden Alemaniko zatietan sortu zan gobernua Alemaniko gobernu jatorra bezela ezagutu zuten. Gobernu orrek Alemaniko iru laurdenetan agintzen du, banan zati bat, errusitarrei tokatzen zitzaiena beste gobernu baten mendeen dago. Orretaz bada lengo Alemanian bi gobernu ta bi estatu arkitzen dira. Bata Alemaniko errepublika federala izeneko ta Adenaur agintzalle daukana, bestea berriz Alemaniko errepublika erriko izeneko eta Ulbricht jauna agintari bezela daukana. Eta naaspillo orren Berlingo uria, eta prolemi audienetakoak sortu azi dituana. Berlingo uri au alde guztietatik errusitarrei tokatzen zitzaizen zatiak inguratua dago, banan ala ere Alemaniko kapitala izana zala ta lenago esnadako lau nazio oiek Berlin bera lau zatitan ebaki zuten. Eta jakina uri ortara joan al izateko bide jakinak jarriak daukate okzidentalak. Ortan dago arrisurik audienetako. Errusitarrek batzuetan Ulbrichten Alemaniaren pakea izenpetuko dutela esaten dute. Ori gertatuko ezkerko Berlinera joateko bide piek Alemaniko komunisten mendeen arkituko lirake eta ori da okzidentalak inola ere onartuko ez dutena.

Alemaniko federalak uste du bera dala benetako Alemania eta orregatik bere politika guztia bi gai auctera dittoa: beste Alemania inola ere ez dedilla estatu bat bezela ezagutu izan, eta bigarren Alemaniaren batasuna. Okzidentalak orrekin konforme datoze banan errusitarrek esaten dutenez Alemanik bat izan bear baldin badu, Alemaniko ori ezifit ditekela neutrala baijak izan. Prolema au konpontzen ez dan bitartean ez degu benetako pakerik izango munduan, guda Berlinetik noiz nai sortu ditekela.

Gauzak onela egonaz errez ikusten da ez dirala onak izango Alemaniko federalaren eta Errusiaren artu-emanak. Orain dala egun gutxi Dehler jauna Bundestag'eko bigarren lendakaria Moscou izandu da eta —inork uzte etzuna— Khrouchtchev izketaidi bat eduki du. Izketaidi ortan Khrouchtchev oso paketsu eta Alemaniko federalarekin artu-emanak ugaritzeko asmoekin azaldu da... Gizarte guztiak nai genduke pake maitasun oiek bentakoak izateak eta batez ere eginkorrak.

Arregitar Rikardo'k

BURU AINBAT ABURU

EZTA...! BAIDA...!

IZEN-ORDEAK ETA

Izengoitiak, izenordeak, eskual idazleen artean. Ez da ez, euskaldunen artean, oraingo gaitza goraberatxo ori. Badauke lana euskal liburuen berri-emaille diranak, eta Literaturaren kondaira edo istori-egileak, izenordean azpian gordezten diran idazleak zeintzuk diran jakiten dira eta zuzen jartzen.

Egia da beste izkuntzetan be idazle askok erabili dabezala izengoitiak. Ez daukagu Espasa Entziklopedia ikustea besterik. Nor ez ditu esagutzen Azorin, Xenius, Fernán Caballero? Baiña gure gizaldiko euskal idazleen artean gertatzen dana, piska bat xelebrekeria be bada. Ez dakit zenbat izango diran gutxienez izengoitiak bat erabili ez dabezenak. Egunkarietan eta aldizkarietan idatzi dabezen artean batez be, aurkitzen dira bi, iu eta geiago erabili dabezenak. Dozena bat izengoitidun bat ezagutzen dot, eta onelako asko ez badira be, ez dot uste bakarra eta atzenengua izango danik amabidun au.

Ez da arritzeko izango, esaten badot eundakak eta eundakak dirala gure literaturan izengoitiak. Millatik gora dirala esango banuke, ez dakit utz aundirik egingo neukan. Joan zaitex orain naspilla ori garbi ipintzen, eta ikusiko dozu zelan gertatuko zeran. Urkiolan edo Arantzazun denporaldi batean atsedendaldi bat artzeko moduan bai, lenago zoroetxera eruatzen ezbazaitue! Jon Bilbao gixajua, erruki deutzet!

Idazle on pilla bat, izenordeekin ezagutzen ditu errienteak be, bertsolariak eta alde batera utzita. Benetako izenen gañetik jarri dira Bilintx, Orixe, Lizardi, Kirikiño, Aitzol, etabar. Beste asko, zeiniek diran jakinarren, ez dira beti benetako izenen gañetik jarri, entzute aundia artuarren.

MUNDAKA'IK

PALAZIYO ederr bat eta LEKU ZORAGARRIYA

Barrio bihurtu gara, lanarteak dirala-la-ta, geure Mundaka honetara. Oraifarte ikusi ez dauguzan barriyak begiyen aurrean dadukaguz. Goikokalean erdi, Doña Bernardina'ren palaziyoaren alboan etxeen pillokada egiten ari dira. Baita bere, Mundulio'ko bidean aurrera, geltokiyaren aurrez aurre eta Basterretxe'ren inguruetan, Ondatzarako bidearen asieran. Guztiz, euna bat blizta ba-

rra. Ara, nondik nora, Mundaka'ko geldieran eta soseguran begiratzen daugu sortu da-la azkenean mugida bizigarriya.

PALAZIYO EDERR BAT

Bilbo'tik datorren erregebidetan, Etxeberri'ko buruhan eta Portuondo'ko gaina bainon lehenago, guztiz amaituta agertzen zaiku txalet bat. Politta benetan. Laida'ko ondartzari, adi-adi, begira. Zer-edo-zeren faltan egon behar dalako-edo, ohindino jau-bea barriyak ez-dira agertu.

Eta herroyaren sartunkeran, bertan, Korreosen albo alboan, Gondra'tar Ziriako jaunak egindako palaziyo ederra eha amaituta egon behar dalakoan kanpotik agertzen da. Lau bizitza eta beko batek biribiltzen dute etxe osoa. Ederra benetan. Indiano honeik, lehen izaten ziran kapititan-pilotoak Mundaka'ko aberatsak, gauza eder bat egiten daube egifik honelako etxe ederrak, ba herriyaren arpegiya edertuten, apainduten eta bizituten daube... ez bakarrik beuren-tzat beuren betarako, baiñan, batez be herriyaren edertasunerako bere. Zorihonak guztiori.

LEKU ZORAGARRIYA

Kanpotarrentzat Mundaka'ko tokiya paregabekoa ba'da, pentsa egizuhe irakurleok, mundakarrentzat zelakoa izan behar den. Behin batean, litzeko ertzean atso mundakar bat egohalarik, herriko abade-malsuhak inotson: —Txikiña, zeruan izango zara benetan ondo. Han edukiko dozu zoriona, dohatsutasuna...

—Abade jauna, erantzun zeutson liten egonak, etxean lez, Mundaka'n lez, inun bere ez.

BAINAN, AZURRAK BETI KOIPEA...

Tamala da beentan, Mundaka herriya total itxita egotea.

Hospitaleetik asitita, bide ertze guztiyak ardua barik apurtuta eta birrinduta agertzen zaikuz. Urteak dira, geure umeoroatik gaurarte, horretan konpondu barik edo agertzen direala.

Santa Maria kalea, edo Erdiko Kalea, herriko kalerik usatuena, hain dago goibeheratuta, beren bidez ibiltza ez da-la gauza erreza yende urte-tshentzat.

Talan, bertan, zuzaitzen inguruhe-tan behiñola egondako baratatzxoan eta barandea-esiyen gomutea bere ez da gelditzen.

ERLOJUHA GELDIRIK

Mundaka'ko erlojuha, geure ume denporan, beti egoten zan prest.

Izateko izaten ohi zan Mundaka, inguruhetako herri guztiyeren artean aurreragituena. Ohin, irurogei urte edo, Mundaka'ko herriyak aurrerago-ko guztiyak dadukoan: komunetako eta edaterako kafu-bideak kaleak arriz edo asfaltoz konponduhak, thelephono eta thelegraphontzat etxeleku bereziya, Diru-bankuharen ordezko etxeak, Ayuntamentoko palaziyo ederra, España'ko herri txikiyetan barne, beste berelako bat ez zan egongo la-koize, gotiko araura egindako kanpat-

La Fanderia, S. A.



Eratu gabeko
pentsoarekin



Fanderiko pensoarekin

Ez Merkenak,
Bai onenak!!!

Apdo., 36 Tel. 56134

RENTERIA



1.896

GIPUZKOAKO PROBINTZI-ERASTETXEA
(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

1.963

Zure diru beartetan gura
"PRESTAMEN SERBITZARITZA"z (Servicio de Préstamos)
bailia zaitex.

Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Abera —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko fruituak obetzeko

Jakinbidean jarri zaitex Donostia'ko gure 7 ofizinetan eta Probintziako 59 sukursalean.